

SASIETA MANKOMUNITATEAREN ESTATUTUEN PROIEKTUA

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Mankomunitatea eratzea

Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsaso, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain eta Zumarraga udalerriak elkartu egin dira eta borondatezko mankomunitatea eratu dute, elkarrekin obrak ezarri, kudeatu eta gauzatzeko eta zerbitzuak egiteko, eta modu koordinatuan esku hartzeko 7. artikuluan adierazitako xedearen edo jarduera-esparruaren barruan jasotako garapen ekonomiko eta soziala sustatzen duten alderdietan.

2. artikulua.- Izena

Toki-erakundearen izena «SASIETA MANKOMUNITATEA» izango da.

3. artikulua.- Egoitza

SASIETA MANKOMUNITATEAREN egoitza Beasaingo udalerrian dago, Gipuzkoan, Iturralde-txikiko industrialdeko 3an, 2. solairuan (Salbatore auzoa) eta bere egoitza elektronikoa www.sasieta.eus da.

Zuzendaritza Batzarrak egoitza aldatzeko erabakia har dezake estatutuak aldatu behar izan gabe.

4. artikulua.- Izaera juridikoa eta ahalak

1.- Mankomunitateak udalerriaz gaindiko toki-erakundearen izaera du, udalerrienaren bestelako nortasun eta gaitasun juridikoarekin, eta osatzen duten udalerrien lurralde-esparruan betetzen ditu bere ahalmen arauemaileak edo antolatzeakoak, planifikatzeakoak, programatzeakoak, sustatzeakoak, kudeatzeakoak eta betearaztekoak.

2.- Bere xedeak betetzeko, foru-araudiak aurreikusitako ahal eta prerrogatiba guztiak izango ditu Mankomunitateak, horiek guztiak jotzen baitira bere xedeak betetzeko beharrezkotzat, honako bi muga hauekin:

a) Desjabetzeko ahala egikaritzea okupatu beharreko ondasunak kokatzen diren udalerritari egokituko zaio, eta, hainbat udalerritan kokatzen badira, Gipuzkoako Foru Aldundiari, betiere Mankomunitateak eskatuta eta haren onerako.

b) Mankomunitatearen finantza- eta zerga-ahalak zergapetze bikoitzaren debekua errespetatuko du, eta ezin izango ditu kargatu udalek beren zerga-ordenantzetan edo beste erabaki batzuetan kargatzen dituzten ondasunak, eskubideak, jarduerak eta zerbitzuak.

5. artikulua.- Antolaketa eta funtzionamendua

Mankomunitatearen antolaketa eta funtzionamendua estatutu hauetan aurreikusitakoari lotuko zaizkio, eta, halakorik ezean, toki-araubideari buruzko oinarritzko legeriak, foru-araudiak eta toki-araubideari buruzko euskal legeriak arautuko dituzte.

6. artikulua.- Mankomunitatearen indarraldia

Mankomunitateak iraupen edo indarraldi mugagabea izango du, estatutu hauetan ezarritako arrazoien ondorioz eta prozeduraren arabera desgiteko aukera ezertan galarazi gabe.

II. TITULUA. MANKOMUNITATEAREN XEDEA

7. artikulua.- Mankomunitatearen xedea

1. Mankomunitate honen azken helburua da osatzen duten udalerrien tokiko garapena, soziala eta ekonomikoa eta haien herritarren komunitate-ongizatea lortzea.

Helburu horiek erdiesteko, Mankomunitateak kostu eraginkorrak eta kalitate-estandar optimoak erdiestea bilatuko du bere eskumenekoak diren zerbitzuen prestazioan.

2. Mankomunitateak esparru material hauetan egikaritzeko ditu bere eskumenak:

a) Etxeetan, saltokietan eta zerbitzuetan sortutako etxe-hondakinak biltzeko zerbitzuen antolamendua, kudeaketa, prestazioa eta kontrola.

b) Hiri-hondakin solidoak berrerabiltzeari, birziklatzeari, baliatzeari, baliarazteari eta, oro har, kudeatzeari lotutako azpiegitura, zerbitzu eta jardueren ezarpena eta ustiapena, baldin eta udalerrri mankomunatuari zerbitzu egiten badiete eta haien eskumena beste erakunde publiko bati eskusiban ez badagokio.

c) Azpiegiturak ixteko eta itxi ondoren zaintzeko eragiketen kudeaketa.

d) Hiri- edo udal-hondakinaren produkzioa murrizteko plangintza, programazioa eta diziplina.

e) Garbiguneen antolamendua, kudeaketa, prestazioa eta kontrola.

f) Hiri-hondakin arriskutsuen edo dituzten ezaugarriengatik kudeatzeko zailak diren hondakinaren ekoizleentzat edo edukitzeentzat nahitaezko neurriak antolatzea, ezaugarri horiek desagerrarazteko edo murrizteko, edo modu eta leku egokian uzteko.

g) Merkataritzako hondakin arriskugabeen eta industrietan sortutako etxe-hondakinaren kudeaketa. Mankomunitateak nahitaezko kudeaketa-sistema propioa ezar dezake hondakin-ekoizle guztientzat.

h) Obra txikietan sortutako eraikuntzako eta eraispeneko hondakinaren kudeaketa.

i) Herritarrak prestatzeko eta kontzientziazteko kanpainak garatzea.

j) Hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko programak egitea.

k) Berrerabiltzea xede duten edo hondakin gutxiago sortzea zein horien inpaktua murriztea helburu duten kontsumo-produktuen eta zerbitzuen garapen teknikoa eta merkaturatzea bultzatzea.

l) Material birziklatuak dituzten produktuak eskuratzeari lehentasuna emango dion erosketaren publikoaren politika ezartzea eta hedatzea.

m) Udal mankomunatuarekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan jardutea haien eskumenak egikaritzen eta zuzenean egiten dituzten zerbitzuen prestazioan, xede erkideak erdiesteko.

n) Estatutu hauen ondorengo hondakinaren kudeaketari buruzko legeriaren arabera dagozkien edo udalerriek beren gain har ditzaketen beste guztiak.

3. Mankomunitateak zerbitzu publiko deklaratuak ditzake hondakin jakin batzuk kudeatzeko eragiketa guztiak edo batzuk, baldin eta giza eta ingurumen-osasuna egoki babesteko arrazoien ondorioz behar bezala arrazoituta justifikatzen badu.

4. Mankomunitateak, nolahi ere, bere esku izango ditu hondakinaren kudeaketaren ondorio diren produktuak eta azpi produktuak, ekoiztutako energia barne, eta, egokituz jotzen duenean, horiek merkaturatzeko jarduerak egin ahal izango ditu.

5. Mankomunitateak bere gain har dezake hiri-hondakin solidoez bestelako hondakinen kudeaketa, baldin eta eskumenak dagozkien prozeduren arabera eskuordetzen edo transferitzen badizkiote.

6. Mankomunitatearen hondakinak kudeatzeko politika publikoek kontuan hartuko dute beste ingurumen-politika batzuetan duten eragina, bereziki klima-aldaketaren aurkako borrokan eta ekonomia zirkular eta sozialaren ezarpen eta garapenean dutena. Mankomunitateak, bere helburuak betetzeko, egokitzat jotzen dituen erakunde eta agenteekin lankidetzan jarduteko estrategiak formulatu eta horretarako mekanismoak garatuko ditu, portaera eta jarduketa ekologiko eta jasangarrien bidez ingurumena babesteko eta hobetzen laguntzeko eta energia-eraginkortasuneko politika publikoak ahalik eta eraginkorrenak izan daitezen bermatzeko.

III. TITULUA. ANTOLAKETA

8. artikulua.- Antolaketa

Gobernua eta administrazioa Sasieta Mankomunitateari dagokio, eta honako organo hauek bitartez antolatuko da:

- 1.- Zuzendaritza Batzarra
- 2.- Lehendakaria
- 3.- Lehendakariordea
- 4.- Batzorde Betearazlea

I. KAPITULUA. GOBERNU ORGANOAK

1. atala.- Zuzendaritza Batzarra

9. artikulua.- Zuzendaritza Batzarra

1. Udal mankomunatuak izendatzen dituzten ordezkariak osatuko dute Zuzendaritza Batzarra. Lehendakaritzako eta lehendakariordetzako funtzioak betetzen dituzten kideak eta Batzorde Betearazleko kideak izango dira Zuzendaritza Batzarreko kide.

3. Mankomunitatea osatzen duten toki-erakundeek udalerri bakoitzeko biztanle kopuruaren proportziozko ordezkariak izango dute Zuzendaritza Batzarrean, haiei dagokien guztizko ehunekoaren barruan, udalerri mankomunatu guztien biztanle kopuruaren gainean bakoitzak duen biztanle kopurua kontuan hartuta, Estatistikako Institutu Nazionalak biztanleriari buruz argitaratutako azken zifra ofizialen arabera.

4. Zuzendaritza Batzordean Mankomunitatea osatzen duten udalerriak ordezkaturatu egongo dira, honako eskala honen arabera:

- 5.000 biztanle arteko udalerriak: 1 ordezkari.

- 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerriak: 2 ordezkari. Mankomunatuak udalerrien bi ordezkarietako bakoitzari ordezkariak izango duen udalerriari esleitzen zaion boto haztatuaren erdiaren baliokidea den boto-ehuneko egokitu zaio. Udalerri jakin bati esleitutako boto haztatuaren ehuneko zati bi egitearen emaitza zenbaki oso bat ez denean, zenbaki osoa eta lehen dezimala hartuko dira. Beraz, ordezkari bakoitzaren boto haztatuak azkenean dezimal bakarra izango du. Ordezkari horrela esleitutako boto-ehunekoaren eta udalerri mankomunatuari dagokionaren artean dagoen diferentzia dezimala udal mankomunatuak erabaki duen ordezkariari esleituko zaio.



5. Ordezkarri bakoitzari boto haztatua esleitzearen emaitza zenbaki oso bat ez denean, zenbaki osoa eta lehen dezimala hartuko dira, eta lehen dezimala biribildu egingo da. Boto haztatuaren guztizko ehunekoak % 100 izan behar du: ordezkariei esleitutako boto haztatuaren ehunekoen batura 100 baino handiagoa edo txikiagoa bada, behar den doikuntza egin beharko da hurrengo hiru dezimalak kontuan hartuta.

6. Toki-korporazioak berritzearen ondorioz udal mankomunatueta organoak eratu behar diren bakoitzean, udalerrri bakoitzari esleitutako ordezkaritza-ehunekoa eguneratu egingo da, eta horretarako ez da estatutueta inongo aldaketarik egin beharko. Ehuneko berriak berriz eguneratu arte egongo dira indarrean. Eguneratzea udal mankomunatu guztiei jakinaraziko zaie.

10. artikulua.- Udaleko osoko bilkurak Mankomunitatearen Zuzendaritza Batzarreko kideak eta horien ordezkoak izendatzea

1. Mankomunitatearen Zuzendaritza Batzarra eratzeko bilkura udal-hauteskundeak egiten diren egunaren biharamunetik hasi eta hiru hilabeteko epean egingo da. Ordezkarrien legezko kopuruaren gehiengo absolutua bertaraten ez bada, era berean, boto haztatuaren gehiengo absolutua eta udalerrri mankomunatuaren kopuruaren gehiengo absolutua ordezkatzen duena, bilkura handik bi egunetara egingo da, eta eratuta geratuko da bertan dauden ordezkarrien kopurua eta boto kopurua eta ordezkatutako udalerrrien kopurua dena dela ere.

2. Mankomunitatean integratutako udalerrrietako udaletako osoko bilkurek ordezkarriak izendatuko dituzte hurrenez hurrengo udalbatzak eratzeko bilkuraren hurrengo hogeita hamar egunen barruan. Udalerrrien ordezkariek beren karguak uzten dituztenean, agintaldia amaitu delako, Mankomunitatean duten postua mantenduko dute erakunde mankomunatuak ordezkarri berriak izendatzen dituzten arte.

3. Udaleko osoko bilkurak izendatutako kide bakoitzaren ordezko bat hautatuko du. Ordezkapena kide anitzeko organoko kideen funtzio generikoetarako besterik ez da izango, ez lehendakariaren edo lehendakariordearen funtzio espezifikotarako edo ordezkatutako kideak izan lezakeen beste edozeinetarako.

4. Agintaldia amaitu denean, kargua utzi duten udalen Mankomunitateko ordezkariek soilik ohiko administratziotarako funtzioetan jarraituko dute Zuzendaritza Batzar berria eratzen den arte, eta ezin izango dute hartu legez gehiengo kualifikatua eskatzen duen erabakirik.

11. artikulua.- Zuzendaritza Batzarraren eskuduntzak

Zuzendaritza Batzarrari eskuduntza hauek dagozkie:

1. Gobernu-organoen kontrola eta fiskalizazioa.

2. Mankomunitateko udalerrriak atxikitzeari eta bereizteari buruzko erabakiak, udalerriaz gairik erakundeetan parte hartzeari eta izena eta egoitza aldatzeari buruzkoak onartzea.

3. Estatutuaren aldaketak onartzea.

4. Mankomunitatea desegitea eta ondasunak, eskubideak eta zorrak likidatzeko proposatzea.

5. Ordenantzak eta erregelamenduak onartzea.

6. Baliabide propioak eta udalek jarri beharreko kuotak zehaztea; aurrekontuak onartzea eta aldatzea; bere eskumenerako gaitan gastuak xedatzea eta kontuak ematea.

7. Zerbitzu guztiak kudeatzeko moduak eta udalekotzeko espedienteak onartzea.

8. Langileen plantilla eta lanpostuen zerrenda onartzea, eta funtzionarioen ordainsari osagarri finko eta aldizkako zenbatekoa finkatzea.



9. Akzio administratiboak eta judizialak eta Mankomunitatearen defentsa egikaritzea Zuzendaritza Batzarraren eskumeneko gaietan.
10. Mankomunitatearen egintzen kaltegarritasun-deklarazioa.
11. Jabari publikoko ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzea.
12. Ekonomia-ekitaldi bakoitzaren barruan aurrekontuaren ohiko baliabideen ehuneko 10etik gorako zenbateko metatua duten kreditu-eragiketak ituntzea —diruzaintzakoak izan ezik; horiek ituntzea egokituko zaio une bakoitzeko eragiketa bizien zenbateko metatuak aurreko ekitaldian likidatutako diru-sarrera arrunten ehuneko 15 gainditzen duenean—, hori guztia Toki Ogasunen Foru Arauan xedatutakoaren arabera.
13. Kontratazio-organo gisa, tokiko erakundeetako lehendakariaren eskumeneko ez diren kontratuen gainean, zenbateko- zein iraupenaren aldetik, eta izaera orokorreko administrazio-baldintzen orriak onartzea.
14. Ondasunen gaineko emakidak esleitzea eta ondasun higiezinak eta ondare-legeriari lotutako eskubideak eskuratzea, haien balio-zein iraupenaren aldetik, tokiko erakundeko lehendakariaren eskumeneko ez direnean.
15. Obra eta zerbitzuen proiektuak onartzea, horien kontrataziorako edo emakidarako eskumena duenean, eta oraindik aurrekontuan aurreikusi gabe daudenean.
16. Mankomunitateak udalerriaz gaindiko organoetan dituen ordezkariak izendatzea, ahalik eta ordezkaritza-pluraltasun politiko handiena bermatuta, eta Batzorde Betearazleko edo barneko kide anitzeko beste organo batzuetako kideak izendatzea.
17. Beste administrazio publiko batzuekin lankidetzaz-hitzarmenak eta kudeaketa-mandatuak izenpetzea eta beste administrazio batzuen eskuordetzeak, transferentziak edo mandatuak onartzea.
18. Kode etikoak eta jokabide-kodeak onartzea.
19. Ordezkarien ordainsariak eta bertaratzeak finkatzea.
20. Onartzeko gehiengo berezia behar duten beste guztiak.
21. Estatutu hauek berariaz eman edo legeek udaleko osoko bilkurari esleitzen dizkion gainerakoak.

2. atala.- Lehendakaritza

12. artikulua.- Izendapena

1. Mankomunitateko lehendakaria Mankomunitatearen Zuzendaritza Batzarreko kideen artean hautatuko dute. Lehendakari hautatuko dute lehen bozketan legezko kideen boto haztatuaren legezko kopuruaren gehiengo absolutuaren eta udalerrri kopuruaren gehiengo absolutuaren aldeko botoa lortzen duena. Lehen bozketan hautagai bakar batek ere gehiengo absolutu hori lortzen ez badu, ondoren beste bozketa bat egingo da, eta lehendakari aldarrikatuko dute emandako botoen gehiengo soila eta une horretan ordezkatuta dauden udalerrrien gehiengo soila lortzen duen hautagaia. Berdinketarik izanez gero, zozketa bidez ebatziko da.
2. Zuzendaritza Batzarra eratzeko bilkuran izan ez diren udal-ordezkariak batzarrak egiten dituen hurrengo bilkuretan egingo dira batzarreko kide, beren nortasun-egiaztagiria entregatu eta Zuzendaritza Batzarrak aztertu ondoren.
3. Lehendakaritzak kargua utziko du indarrean dagoen legerian alkate lehendakariaren kargua galtzeko adierazten diren inguruabarretako edozeinen ondorioz, udal-hauteskundeon ondoren ohiko lehen batzarra egiten denean. Bilkura horretan parte hartuko dute udal



mankomunatuak izendatutako ordezkari berriek eta bertan izendatuko dute, ordezkarien artean, lehendakaritza berria.

13. artikulua.- Lehendakariaren eskuduntzak

Mankomunitateko lehendakariak betetzen du Zuzendaritza Batzarreko eta Batzorde Betearazleko lehendakaritza.

Lehendakariak eskuduntza hauek ditu:

1. Mankomunitatearen gobernu eta administrazioa zuzentzea.
2. Mankomunitatea ordezkatzeko.
3. Zuzendaritza Batzarraren bilkurak deitzea eta horietan lehendakari lanetan aritzea.
4. Zerbitzu eta obra mankomunatuak zuzentzea, ikuskatzea eta bultzatzea.
5. Kudeaketa ekonomikoa onartutako aurrekontuaren arabera garatzea, bere eskumen-mugaren barruan gastuak xedatzea, baldin eta aurrekontuan aurreikusita badaude eta ekonomia-ekitaldi bakoitzaren barruan horien zenbateko metatuak ohiko baliabideen ehuneko hamar gaintzen ez badu —diruzaintzakoak izan ezik; horiek ituntzea egokituko zaio une bakoitzeko eragiketa bizien zenbateko metatuak aurreko ekitaldian likidatutako diru-sarrerara arruntan ehuneko hamabost gaintzen duenean—, ordainketak agintzea eta kontuak ematea; hori guztia Toki Ogasunen Foru Arauan xedatutakoaren arabera.
6. Lan-eskaintza publikoa Zuzendaritza Batzarrak onartutako aurrekontuaren eta plantillaren arabera onartzea, langileak hautatzeko proben eta lanpostuak hornitzeko lehiaketetarako proben oinarriak onartzea, eta finakoak eta aldizkakoak ez diren ordainsari osagarriak banatzea.
7. Mankomunitateko langile guztien goi-buruzagitza betetzea, eta horien izendapena eta zehapenak erabakitzea, funtzionarioak zerbitzutik bereiztea eta langile lan-kontratudunak kaleratzea barne, eta horren berri ematea Zuzendaritza Batzarrari, azken bi kasu horietan, egiten duen lehen bilkuran. Estaturako gaikuntza duten funtzionarioei buruz xedatutakoa ezertan galarazi gabe ulertuko da eskudantzia hori.
8. Akzio judizialak eta administratiboak eta Mankomunitatearen defentsa egikaritzea bere eskumeneko gaietan, eta, presako kasuetan, Zuzendaritza Batzarraren eskumeneko gaietan. Azken kasu horretan, Zuzendaritza Batzarrari horren berri emango dio egiten duen lehen bilkuran, berresteko.
9. Lehendakaritzaren eskumeneko gaietan kaltegarritasun-deklarazioa Zuzendaritza Batzarrari proposatzeko ekimena.
10. Bere agintaritzari desobeditzeko faltak edo ordenantza eta erregelamenduen arauak haustearen ondoriozkoak zehatzea, ahalmen hori beste organo batzuei esleituta dagoenean izan ezik.
11. Kontratazio-organoko gisa, kontratazio-legeriak tokiko erakundeetako lehendakariari onartzen dizkion eskumenak egikaritzea.
12. Ondasunen gaineko emakidak esleitzea eta ondasun higiezinak eta ondare-legeriari lotutako eskubideak eskuratzea, oinarritzko lizitazio-aurrekontuak aurrekontuaren ohiko baliabideen 100eko 10 edo hiru milioi euroko zenbatekoa gaintzen ez duenean eta ondarea besterentzea, haien balioak adierazitako ehuneko eta zenbatekoa gaintzen ez dituenean.
12. Berdinketak kalitateko botoarekin erabakitzea.
13. Legezko tramitazio espezifikorik ez duten erregelamendu-aurreproiektuak alde aurreko kontsulta pean jartzea.



14. Mankomunitatearen gobernu-organoen erabakiak argitaratzeko agintzea, betetzea eta betearaztea.

15. Obra eta zerbitzuen proiektuak onartzea, horien kontrataziorako edo emakidarako eskumena duenean, eta aurrekontuan aurreikusita daudenean.

16. Bere kabuz hartzea, bere erantzukizunpean, Mankomunitatearen gaiak behar dituzten presako neurriak. Batzarrari horren berri emango dio egiten duen lehen bilkuran, eta ohiz kanpoko bilkura deitzeko erabakia hartuko du, kasuaren garrantziak hala eskatzen duenean.

17. Mankomunitatearen hondakinak ikuskatzeko zerbitzuetako langileen buruzagitza.

18. Mankomunitatearen zerbitzuen funtzionamendu ona eta haren xedeak egoki betetzea eskatzen duten gainerako funtzioak, baldin eta Zuzendaritza Batzordearentzat erreserbatuta ez badaude.

3. atala.- Lehendakariordetza

14. artikulua.- Izendapena

1. Lehendakariordetzaren funtzioak beteko dituena Mankomunitatearen Zuzendaritza Batzordeko kideen artean izendatuko dute, estatutu hauen 12.1 artikuluan aurreikusitako moduan.

2. Lehendakariordetza eta lehendakariordetzako karguak ezin izango dituzte bete udalerririk mankomunatu bereko ordezkariak. Bi karguak aldi berean hutsik badaude, lehendakariaren kargua behin-behinean beteko du adinez zaharrena den Zuzendaritza Batzarreko kideak eta lehendakariordearena adinez gazteena, betiere aurreko salbuespena mantenduta.

3. Lehendakariordetzak kargua utziko du udal-hauteskundearen ondoren ohiko lehen batzarra egiten denean. Bilkura horretan parte hartuko dute udal mankomunatuak izendatutako ordezkari berriak eta bertan hautatuko dute, ordezkarien artean, lehendakariordetza berria.

16. artikulua.- Eskuduntzak

Lehendakariordetzari dagokio lehendakariordetza betetzen duen pertsona funtzio guztietan ordeztekoa, hura ez dagoenean, kargua hutsik dagoenean edo gaixorik dagoenean. Lehendakariaren funtzioak bere gain hartzen dituen lehendakariordeak ezin izango ditu inola ere hark emandako eskuordetzeak ezeztatu, ezta lehendakariaren eskuduntzen eskuordetze berririk eman ere.

4. atala: Batzorde Betearazlea

17. artikulua.- Osaera

1. Batzorde Betearazlea, gutxienez, lehendakariak, lehendakariordeak eta hiru bokalak osatuko dute. Kideen kopuruak ezingo du gainditu Mankomunitateko udalerririk kopuruaren heren bat.

Batzorde Betearazlearen osaerak lurralde-esparru mankomunatuaren dagoen pluraltasun zein aniztasun politikoa errespetatu eta bermatu behar ditu, horien artean, ordezkariordetza burujabeak zein biztanle gutxiago duten udalerririk egotea eta parte hartzea ere bai.

2. Lehendakaria, Lehendakariordea eta Beasaingo Udalaren ordezkari bat Batzorde Betearazleko karguagatikoko kideak izango dira; izan ere, udalerririk hori da azpiegitura nagusien



kokalekua (Sasieta zabortegia, itxi ondorengo fasean, transferentzia-estazioa, Garbigunea), eta bera ere Mankomunitatearen egoitzaren kokalekuaren jabea bada.

3. Lurralde-esparru hauetako bakoitzak nahitaez izango du ordezkari bat Batzorde Betearazlean:

- Ataun, Ordizia, Lazkao.
- Zumarraga, Urretxu, Legazpi, Ezkio, Itsaso, Gabiria, Ormaiztegi.
- Olaberria, Segura, Zegama, Zerain, Mutiloa, Idiazabal.
- Zaldibia, Itsasondo, Alzaga, Legorreta, Gaintza, Arama.

4. Batzorde Betearazlearen kideak izendatzeko prozedurak hasiko dira Zuzendaritza Errektorea eratzeko bilera egin eta hurrengo hogeita hamar egunen barru.

Lehen aipatutako lurralde-esparru bakoitzeko ordezkariak eratzeko dute Mahai bat, Batzorde Betearazlerako kidea izendatzeko proposamena luzatzea xede bakarra duena. Lehendakaria eta lehendakariordea datozen lurralde-esparruetan ez da eratzeko mahairik.

Mahai bakoitzaren lehendakaria izango da Mankomunitatearen Lehendakaria, boza bai baina botorik ez duena, Mankomunitateko idazkariaren laguntzarekin. Mahaiaren ordezkari bakoitzak bere burua izendatzeko proposamena aurkeztu ahal du. Izendapen proposamena mahai bakoitzean bozkatuko da lehendakaria eta lehendakariordea hautatzeko prozedura berberari jarraiki, baina ordezkariak zein boto haztatuen sistemak aplikatu gabe.

5. Mahai bakoitzak onartutako izendapen proposamenak lotesleak izango dira. Berdinketarik egonez gero, zozketa egingo da. Lehendakariak izendatuko du Batzorde Betearazlearen kidea.

6. Mahai bateko ordezkariak bere burua aurkezten ez badu, dagokion lurralde-esparruko ordezkarien artean aske izendatuko du lehendakariak, artikuluko honen 1. atalean kideen gutxienezko kopurua (bost) bete arte, atal horretan ezarritako pluraltasuna- zein aniztasun politikoari buruzko betekizuna errespetatuta.

7. Artikulu honen 1., 2. eta 3. atalek aipatzen dituzten bost ordezkari behin izendatuta, Batzorde Errektorearen edozein ordezkariak bere burua izendatzeko proposamena aurkeztu ahal izango dio Batzorde Betearazleari, horren lehenengo bileran onar dezan, 4. atalak aurreikusten duen prozedurari jarraiki, eta 1. atalean ezarritako irizpideak aintzat harturik.

8. Batzorde Betearazleak egingo du eratzeko bilera, artikuluko honen 1., 2. eta 3. atalek aipatzen dituzten bost kideak hautatzen dituzten egunaren hurrengo hamar egunen barruan.

18. artikulua.- Eskuduntzak

1. Batzorde Betearazlearen berezko eta ezin eskuordetuko eskuduntza da lehendakariari bere eskudantziak egikaritzen etengabe laguntzea. Horretarako, Batzorde Betearazleari lehendakariaren erabaki guztien berri emango zaio, baldin eta gaiaren garrantziak hala eskatzen badu, eta Zuzendaritza Batzarrari onartzea dagokion gaien berri ematea. Informazio hori erabakia hartu eta akordio-proposamenak aurkeztu aurretik emango zaio

2. Lehen deialdian kideen legezko kopuruaren gehiengo absolutua biltzen ez bada, bilkura handik ordu erdirako automatikoki deituztat joko da, baldin eta gutxienez hiru kide bertan badira. Orduan ere behar den quoruma erdiesten ez bada, lehendakariak ondorioz gabe utziko du deialdia, eta egiten den hurrengo bilkuran aztertuko utziko ditu gai-zerrendan jasotako gaiak, bilkura ohikoa zein ohiz kanpokoa izan. 3. Batzorde Betearazleari dagokio:

- Estatutuak, erregelamenduak eta ordenantzak aldatzeko proiektuak onartzea.



- Aldez aurretik kontsulta pean jarritako ordenantzak edo erregelamenduak onartzeko espedienteetan herritarrek, erakundeek eta elkarteek aurkeztutako ekimenak eta proposamenak ebaluatzea.
- Gardentasunaren arloko betebeharrak bete daitezzen zaintzea eta informazio publikoa eskuratzeari dagozkion erreklamazioak ebatzea.
- Likidazio-metodologiari eta ekarpenak itzultzeko metodologiari buruzko erabaki edo erregelamenduen proposamenak onartzea.
- Kontuen Batzorde Berezi gisa jardutea.
- Gobernu-plana, urteko plan arauemailea, diru-laguntzen plan estrategikoa, urteko kontratazio-plana, ikuskaritza-planak eta lehendakariak onartzekoa den beste edozein plan egitea eta onartzea.
- Zuzendaritza Batzarrari proposatzea zerbitzu publikoak kudeatzeko moduak hartzeko eta ekonomia-jardueraren ekimena egikaritzeko.
- Zuzendaritza Batzarrari proposatzea elkarlan- edo lankidetzak-hitzarmenak, eskuordetzeak eta eskumen-transferentziak eta beste erakunde batzuen kudeaketa-mandatuak edo horien aldekoak onartzeko.
- Arau-hauste oso astunen ondoriozko zehapen-espedienteak ebatzea.
- Lehendakariak eta Zuzendaritza Batzarrak berari eskuordetutakoak

II. KAPITULUA. GOBERNU ORGANOEN FUNTZIONAMENDUA

1. atala: Zuzendaritza Batzarra

19. artikulua.- Deialdia

1. Lehendakariari dagokio Zuzendaritza Batzarraren bilkura guztiak deitzea. Ohiz kanpoko bilkuretarako deialdiak arrazoitua izan beharko du. Ohiz kanpoko presako bilkuretarako deialdia lehendakariak egingo du gaiaren presak hala eskatzen duenean. Kasu horretan, presari buruzko Zuzendaritza Batzarraren erabakia izango da gai-zerrendako lehen gaia. Organo horrek presakotzat jotzen ez badu, bilkura amaitutzat emango da eta ezin izango da erabakirik hartu. Halaber, bilkura egin ahal izango da Zuzendaritza Batzarreko kide guztiak bertan izanik, aho batez erabakitzen dutenean.
2. Bilkuren deialdiarekin batera, aztertu beharreko gaiak behar besteko xehetasunarekin jasoko dituen gai-zerrenda eta bilkuran onartu beharko diren aurreko bilkuretako akten zirriborroak aurkeztuko dira.
3. Deialdiaren eta bilkura-egunaren artean ezin izango dira lau egun baliodun baino gutxiago igaro, ohiz kanpoko presako bilkuren kasuan izan ezik.
4. Zuzendaritza Batzarrak gutxienez hiru hilez behin egingo du ohiko bilkura.
5. Ohiz kanpoko bilkurak egingo dira gutxienez udalerrri kopuruaren laurdena ordezkatzeko duten kideek eskatzen dutenean. Eskatera hori idatziz egin beharko dute, eragin duen gaia edo gaiak arrazoituta, eta eskaera izenpetzen duten guztiek pertsonalki sinatu beharko dute. Kasu horretan, eskatu ondorengo lau egunen barruan egin beharko da deialdia, eta bilkura ezin izango da bi hilabete baino gehiago atzeratu idazkia Erregistro Orokorrean sartzen denez geroztik.

20. artikulua.- Bertaratze-quoruma



Zuzendaritza Batzarra balioz eratzeko, bertan egon beharko dute batzarreko kideen erdiak gehi batek —gainera, boto haztatuaren erdia gehi bat ordezkatu behar dute—. Ordu erdi beranduago egingo den bigarren deialdian botoen erdiak gehi bat beharko dira, bertaratutako kide kopurua dena dela ere, baldin eta gutxienez bost kide bertan badaude. Gainera, nahitaezkoa izango da lehendakaria edo lehendakariordea eta idazkaria edo legezko ordezkaria bertaratzea.

Komenigarritzat jotzen diren langile teknikoek bileretan parte hartu ahal izango dute, hitzarekin baina botorik gabe.

21. artikulua.- Erabakiak hartzea

1. Zuzendaritza Batzarraren erabakiak, oro har, bertan dauden kideen boto haztatuaren gehiengo soilez eta udalerrien gehiengo hartuko dira.

2. Boto-eskubidea duten kideen boto haztatuaren gehiengo absolutuaren aldeko botoa eta udalerrien gehiengo absolutuaren aldeko botoa beharko da honako gai hauetan erabakiak hartzeko:

a) Mankomunitatearen erregelamendu organikoa onartzea eta aldatzea.

b) Kideak onartzea eta udalerriren bat Mankomunitatetik bereiziz gero likidazio-kontua onartzea.

c) Mankomunitatea desagitea eta bere ondasunak, eskubideak eta zorrak likidatzeko proposatzea.

d) Ondasunak edo zerbitzuak bost urtetik gorako eperako ematea, baldin eta horien zenbatekoak aurrekontuko ohiko baliabideen % 20 gainditzen badu.

e) Finantza- edo kreditu-eragiketak onartzea, horien zenbatekoak aurrekontuko ohiko baliabideen 100eko 10 gainditzen duenean. Orobat, Gipuzkoako Toki Ogasunen uztailearen 5eko 11/1989 Foru Arauaren 51. artikuluan aurreikusitako kreditu-eragiketak onartzea.

f) Zerbitzu guztiak kudeatzeko modu zehatza onartzea.

g) Ondasunak besterentzea, horien zenbatekoak aurrekontuko ohiko baliabideen 100eko 20 gainditzen duenean.

h) Jabari publikoko ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzea.

i) Beste administrazio edo erakunde publiko batzuei ondasunak doan lagatzea.

j) Eskuordetzeak eta eskumen-transferentziak eta beste erakunde batzuen kudeaketa-mandatuak edo horien aldekoak onartzea.

k) Udal-ekarpenak finkatzeko eta likidatzeko irizpideak.

l) Aurrekontua eta kontu orokorra onartzea.

m) Onartzeko gehiengo berezia behar dutela-eta, udalerrietan udaleko osoko bilkurari dagozkion beste eskudantzia guztiak.

3. Udalerrri baten ordezkarien botoen zenbaketan berdinketa baldin badago, udalerrri horren botoa abstentzio gisa zenbatuko da. Ordezkarien botoen zenbaketaren emaitza abstentzio bat eta aldeko botoa izanez gero, udalerrri horren botoa aldeko gisa zenbatuko da. Udalerrri horren botoa kontraktotzat joko da, ordezkarietako bat abstenitzen bada eta besteak kontra bozkatzeko badu. Ez dira kontuan hartuko 9.4 artikuluan aurreikusitako diferentzia dezimalak.

2. atala: Batzorde Betearazlea

22. artikulua.- Batzorde Betearazlearen antolaketa eta funtzionamendua

1. Batzorde Betearazleak gutxienez bi hilez behin egingo du ohiko bilkura. Deialdiaren eta bilkura-egunaren artean ezin izango dira berrogeita zortzi ordu baino gutxiago igaro, ohiz kanpoko eta presako bilkuren kasuan izan ezik. Horrelakoetan, gai-zerrendako gaiak aztertzen hasi aurretik, bilkura presakotzat jo beharko da kideen gehiengoaren aldeko erabakiz.
2. Batzorde Betearazlea balioz eratzeko, bertan egon beharko du kideen gehiengo absolutuak. Quorumik ez badago, bigarren deialdian eratu da, lehen deialdirako adierazitako ordua baino ordu erdi beranduago, eta nahikoa izango da kideen herenak eta, betiere, gutxienez hiru kide bertan egotea.
3. Batzorde Betearazleak, eztabaidatzeko bilkuretan, ezin izango du erabakirik hartu. Eztabaiden emaitza, hala badagokio, irizpen moduan formalizatuko da.
4. Batzorde Betearazlearen idazkaritza gehiengo soilak izendatuko duen batzordeko kide bati egokituko zaio. Berak idatziko ditu bilkuren aktak eta erabakiak ziurtatuko ditu Mankomunitateko langileen laguntza teknikoarekin.
5. Batzorde Betearazlearen laguntza juridikoa Mankomunitateko idazkariari egokituko zaio.
6. Bilkurak ez dira publikoak izango. Bilkuretara Batzorde Betearazlekoak ez diren ordezkariak bertaratu ahal izango dira, lehendakariak berariaz deitzen dienean. Hamar eguneko epean Mankomunitateko kide guztiei bidali beharko zaie bilkuraren aktaren kopia.
7. Batzorde Betearazlearen bilkuretan zein bileretan, lehendakariak bertaratzeko eskatu ahal izango die Batzorde Betearazlekoak ez diren Mankomunitateko kideei edo erakundearen zerbitzuko langileei, beren jardueren esparruari buruzko informazioa eman dezaten.

IV. TITULUA. LANGILEEN ERREGIMENA

23. artikulua.- Mankomunitatearen zerbitzuko langileak

Mankomunitatearen zerbitzuko langileei enpleguari eta funtzio publikoari buruzko indarreko araudia aplikatuko zaie.

24. artikulua.- Idazkaritza

1. Sasieta Mankomunitateko idazkaritzako lanpostua, hirugarren mailakoa, estaturako gaikuntza duen funtzionarioak edo, hala badagokio, udalerrri mankomunatuetoako udaletatik datorren funtzionario baimenduak beteko du, araudi aplikagarriaren arabera; funtzioa egikaritu ahalko du udalerrri mankomunatuetoako udalaren batean halako lanpostuan jarduten duenak.
2. Lanpostuaren kalifikazioa aldatzeko ez dago estatutuak aldatu beharrik.

V. TITULUA. ZERBITZUEN KUDEAKETA

25. artikulua.- Zerbitzuen oinarritzko printzipioak

1. Sasieta Mankomunitateak bere xedea, 7. artikuluan zehaztutakoa, beteko du honako printzipio hauei lotuta: elkartasuna, garapen iraunkorra, ingurumenaren babesa eta



hobekuntza, ingurumen-alderdiak erabakiak hartzean integratzea eta ahalik eta jakintza zientifiko onenaren arabera jardutea.

2. Mankomunitateak, hondakinen kudeaketan hierarkia-printzipioak aplikatuta eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren azaroaren 19ko 2008/98/EE Zuzentarauaren 14. artikuluan jasotako “kutsatzen duenak ordaindu behar du” printzipioari jarraikiz, diskriminazio positiboko irizpideak onartu ahalko ditu prebentzioan, birziklatzean eta berreskuratzean ahalegin handiena egiaztatzen duten udal mankomunatuen alde, eta zigortu egingo ditu errefus gehien sortzen dutenak edo Europako zuzentzauek eta/edo indarrean dauden hondakin-planek ezarritako helburuak betetzen ez dituztenak.

Ondorio horretarako, udalerrri bakoitzean bildutako hondakin-zatikien kopuruak zehaztea ahalbidetuko duten mekanismoak ezarriko ditu Mankomunitateak bere bilketa-sistemetan.

Mankomunitatea hondakinen karakterizazio-azterketak aldika egingo ditu.

26. artikulua.- Bilketa- eta prebentzio-sistemak

Mankomunitateko udalerrietako udalek autonomia dute komenigarritzat jotzen dituzten hondakinen bilketa-sistemak eta prebentzio-sistemak (bakarkako konpostajea eta komunitate-konpostajea) aukeratzeko, baldin eta zerbitzuen benetako kostuetan edo kalitate-estandarretan hobekuntza badaukate.

Udaleko osoko bilkurak hartutako erabakia Mankomunitateari jakinarazi beharko zaio, eta berak kalkulatu du sistema ezartzearen kostua eta udal-erabakiak eraginpean har ditzakeen kontratuen aldaketen edo suntsiarazpen partzialen ondorio diren kostuen likidazioa, betiere kostu horiek minimizatzen edo saihesten ahaleginduta.

27. artikulua.- Kostuak egoztea eta udal-ekarpenak

1. Mankomunitatean aldi berean hainbat bilketa-sistema badaude, aurreko artikuluko aurreikuspena aplikatuta, udal bakoitzari aplikatzen duen bilketa- eta prebentzio-sistemarekin lotutako gastuen eta diru-sarreraren arabera legokiokoen kostua soilik jasanarazteko kalkulatu dira udalen ekarpenak.

Kasu horretan, bere hondakinen bilketa- edo prebentzio-sistema aldatzea erabakitzen duen udal bakoitzak aukeratu duen sistema kudeatzeko Mankomunitateak egin dituen kontratazioen kostuak eta izan dituen gastuak finantzatu beharko ditu, eta ekarpen berriak onartuko dira Mankomunitateak kontratazioei eta gastu-espeditenteei hasiera eman aurretik.

2. Zerbitzu bakoitzari dagozkion udalerrien ekarpenak diru-sarrerek gastuak estaltzeko moduan kalkulatu dira, honako irizpide hauen arabera:

a) Zerbitzu bakoitzaren kostu finkoak udalerrri mankomunatuen guztizko biztanle kopuruaren gaineko udalerrri bakoitzaren biztanle kopuruaren proportzioan kalkulatu dira. Kalkulu horiek egiteko Estatistikako Institutu Nazionalak urtero argitaratzen dituen biztanleriari buruzko azken zifra ofizialak erabiliko dira.

b) Zerbitzu bakoitzaren kostu aldakorak udalerrri bakoitzari dagokion parte-hartzearen ehunekoaren arabera kalkulatu dira, horretarako indize kuantifikagarriak erabilia: udalerrri bakoitzean bildutako hondakinen pisua, dedikazio-denbora eta erabilitako ekipamenduen unitateko kostua, instalatutako edukiontzi kopurua eta horien edukiera, eta abar.

3. Urteko aurrekontuen proiektuarekin batera udalerrien ekarpenei buruzko azterketa jasoko duen eranskina aurkeztuko da. Zuzendaritza Batzarrak onartuko du, modu bateratuan edo aparteko puntu gisa, ekitaldia hasi aurretik. Urteko aurrekontuaren

likidazioarekin batera udalerrri bakoitzari dagozkion ekarpenen likidazioari buruzko txostena aurkeztuko da.

4. Mankomunitateak bere jarduera finantzatzeko eta egiten dituen zerbitzuak hobetzeko, 2.a) atalean aipatutako mankomunitateko zerbitzuen gastu orokorrei zein kostu finkoei dagozkien aurrekontu-likidazioaren ondorio izan litekeen saldo positiboa erabili ahal izango du.

5. Mankomunitateak, udalerriei hobariak edo zigorrak ezartzeko sistemak onartu ahal izango ditu, 25. artikuluan ezarritako irizpideen arabera.

6. Udal mankomunitateek beren aurrekontuetan kontsignatu beharko dituzte Mankomunitateari egin behar dizkioten ekarpenak. Mankomunitatearen aurrekontua betearazteko arauan ezarritako eran eta maiztasunarekin egingo dira ekarpenak. Ekarpeneren horiek, ondorio guztietarako, nahitaezko ordainketatzat hartuko dira, eta lehentasunezkoztat Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauaren 15. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

VI. TITULUA. ERREGIMEN EKONOMIKOA

28. artikulua.- Aurrekontu- eta kontabilitate-erregimena

Mankomunitateari aplikatzekoak izango dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan bildutako aurrekontuei eta gastu publikoari buruzko arauak, hura garatzen duten xedapenak eta aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko araudia.

Era berean, kontabilitate publikoaren erregimenari eta bere kontuen eta kudeaketa ekonomikoaren kontrolari eta fiskalizazioari loturik egongo da, arau horietan ezarritako terminoetan.

29. artikulua.- Baliabide ekonomikoak

Mankomunitatearen baliabide ekonomikoak dira:

- a.- Osatzen duten udalerrrien ohiko eta ohiz kanpoko ekarpenak.
- b.- Bere ondoretik datozen diru-sarrerak eta zuzenbide pribatuko gainerakoak.
- c.- Diru-laguntzak.
- d.- Kreditu-eragiketen emaitza.
- e.- Mankomunitateak egiten dituen obra edo zerbitzuen onuradunek edo erabiltzaileek ordaindu behar dituzten tasak, kontribuzio bereziak eta prezio publikoak, 4.2.c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.
- f.- Hondakinak kudeatzearen ondorio diren produktuak eta azpiproduktuak —are ekoiztutako energia ere— merkaturatzeetik datozen ondasunen irteera edo entrega materiala duten transakzioetan jasotako diru-sarrerak edo salmentak.
- g.- Bere eskumenen esparruko isunen eta zehapenen emaitza.
- h.- Zuzenbide publikoko gainerako prestazioak.

VII. TITULUA. GARDENTASUNA, INFORMAZIOA ESKURATZEA ETA GOBERNU ONA

30. artikulua.- Gardentasuna

Sasieta Mankomunitateak bere egoitza elektronikoa konfiguratu du gardentasun-ataria. Horren bitartez aldi behin eta etengabe emango du lege eskatutako eta intereskoa izan daitekeen informazio guztia, kudeaketa irekia eta gardena ahalbideratzeko eta herritarrek jakin dezaten nola antolatzen den Mankomunitatearen gobernu eta administrazioa, zein funtzio betetzen dituen, zein esparru eta politikatan lehenesten dituen bere erabakiak eta nola esleitzen dituen baliabideak bere eskumeneko zerbitzuen kudeaketan.

VIII. TITULUA. HERRITARREN PARTE HARTZEA

31. artikulua.- Herritarren parte-hartzea

Udalerrietako udal mankomunatuak egokituko zaie hondakinen prebentzio zein kudeaketa-sistemak hautatzeari buruzko parte hartzeko programetara, prozesuetara eta partaidetzazko deliberazio-prozesuetara deitzea eta horiek gauzatzea.

Sasieta Mankomunitateak herritarren parte-hartzea bermatuko du bere politika publikoak planifikatzeko prozesuan, bere planak eta xedapen arauemaileak prestatzeko lanetan zein administrazio jardunbidetan.

IX. TITULUA. MANKOMUNITATEA HANDITZEA, BEREIZTEA ETA DESEGITEA

32. artikulua.- Mankomunitatea handitzea

Mankomunitatean integratuta ez dagoen udalerririk bat haren barruan onartzeko, prozedura honi jarraitu beharko zaio:

- 1) Erakunde interesdunaren alde aurreko erabakia, osoko bilkuraren gehiengo absolutuak hartua.
- 2) Mankomunitateak, lehendakartzaren bitartez, eskaeraren bideragarritasunari buruzko txostena emango du, eta bideragarria izanez gero Mankomunitatean sartzeko baldintzak adieraziko ditu, eta Zuzendaritza Batzarrak dagokiona erabakiko du, bertan diren kideen boto haztatuen gehiengo soilaz eta udalerrien gehiengo soilaz.
- 3) Atxikitzearekiko erabaki positiboa jakinarazita, udalerririk interesdunak estatutuak onartzeko erabakia hartu beharko du eta bere ordezkariak izendatu Mankomunitatearen kide anitzeko organoetan.
- 4) Aurreko paragrafoetan aurreikusitakoa formalizatuta, dagokion estatutu-aldaketa egingo da, 36. artikuluan ezarritako prozedurari jarraikiz.

33. artikulua.- Mankomunitateak bereiztea

Udalerririk batek borondatez Mankomunitateko kide izateari uzteko, erabaki hori balioz hartu beharko du eta gero Mankomunitateari jakinarazi. Jakinarazi ondoren, udalerririk bereizitzat joko da eta likidatu egingo dira bi erakundeen arteko harreman ekonomikoak, honako prozedura honen arabera:

1. Mankomunitatearen eta udalerririkaren arteko egoera ekonomikoa erregularizatu egingo da. Mankomunitateak lortu dituen diru-laguntzak eta izaera finalistako diru-sarrera guztiak bereizten den erakundeari egoki lekiokien gerakinetik kenduko dira.



2. Bereizten den udalerriak bereiztearen ondorioz sortzen diren gastuak ordainduko ditu, baita Mankomunitateak bere kargura hartutako pasiboaren zatia ere. Likidazio-kontua Zuzendaritza Batzarrak onartu beharko du, boto haztatuen gehiengo absolutuaz eta udalerrien gehiengo absolutuaz hartutako erabakiaren bidez.

3. Likidazio-proposamena eta bereizteko baldintzak eta horien ondoriozko estatutu-aldaketa onartzeko honako arau hauek bete beharko dira:

a) Zuzendaritza Batzarrak onartzea, bertan diren kideen boto haztatuen gehiengo soilez eta udalerrien gehiengo soilaz.

b) Erabakia hilabeteko epean jendaurrean jartzea. Horretarako, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da eta udal mankomunatuaren iragarki-tauletan erakusgai jarriko da. Tramite hori egin ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak txostena eman beharko du epe berean. Epea igaro eta txostena eman ez bada, aldekoa dela ulertuko da.

c) Udal mankomunatuaren gehiengoak berrestea, Mankomunitatea eratzeko eskatzen den quorumarekin hartutako osoko bilkuraren erabakiaren bidez.

d) Aldatutako estatutuen testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Kideetakoren bat bereizteko prozesua Mankomunitatearen ohiko martxa nahasi gabe egingo da.

Bereziki, bereizteko eskatu duen udala eraginkortasunez bereiziko da kalkulatzeko den likidazioaren saldoa Mankomunitateari ordaintzen dion unean. Likidazioa kalkulatzeko, indarrean dagoen araudiaren araberrako irizpideak eta bereiztearen ondorioz likidatu behar diren Mankomunitatearen alde aurreko konpromisoak aplikatuko dira.

34. artikulua.- Mankomunitatea desegitea

Hauek izango dira Mankomunitatea desegiteko arrazoiak:

1) Ezarritako xedeak betetzeko ezintasuna.

2) Kide bat ez beste guztiak bereiztea.

3) Legezko xedapena edo interes publikoaren aurkako inguruabarrak biltzea.

4) Zuzendaritza Batzarreko kideen gehiengo absolutuaren erabakia eta estatutuak aldatzeko ezarritako prozedura-arauak betetzea.

35. artikulua.- Likidazio-prozedura

1. Mankomunitatea deseginez gero, bere nortasun juridikoa mantenduko du likidazio-organo gisa, harik eta Zuzendaritza Batzarrak likidatzeko eta bere ondarea banatzeko erabakia hartu arte.

2. Prozedura honi jarraitu beharko zaio:

a) Zuzendaritza Batzarrak formalki erabakiko du desegitea eta likidazio-batzordea izendatuko du.

b) Batzorde horrek Mankomunitatearen ondasun eta eskubideen inbentarioa egingo du, baliabideak, kargak eta zorrak adieraziko ditu, eta Mankomunitatearen zerbitzuko langileen zerrenda egingo du. Egin beharreko banaketan, Mankomunitateko kide izan diren bitartean izan duten batez besteko biztanleria, azken bost urteetakoak, eta osatu duten udalerriek egindako ekarpenak kontuan hartuko dira.

c) Inbentarioa egin ondoren, likidazio-batzordeak Zuzendaritza Batzarrari proposatuko dio ondasunak, eskubideak eta zorrak, Mankomunitatearen zerbitzuko langileenak barne,

Mankomunitateko udalerrien artean integratu eta banatzeko modua. Horretarako, jarduketan egutegia zehaztuko du.

- d) Likidazio-proposamenak Zuzendaritza Batzarraren kideen boto haztatuaren gehiengo absolutuaren aldeko botoa eta udalerrien gehiengo absolutuaren aldeko botoa beharko ditu.
- e) Likidazio-proposamenaren jendaurreko erakustaldia bermatuko da hilabetez.
- f) Udal mankomunatuaren gehiengoak onartu beharko du proposamen hori, kideen legezko gehiengo absolutuarekin hartutako osoko bilkuraren erabakiaren bidez.
- g) Likidazioa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

X. TITULUA. ESTATUTUEN ALDAKETA

36. artikulua.- Estatutuen aldaketa

Estatutuen aldaketak prozedura hau beteko du:

- a) Ekimena lehendakaritzari egokituko zaio edo, gutxienez, Zuzendaritza Batzarraren herenari.
- b) Zuzendaritza Batzarrak onartzea, bertan dauden kideen boto haztatuaren gehiengo soil ez eta udalerrien gehiengo hartutako erabakiaren bidez.
- c) Erabakia hilabetez epean jendaurrean jartzea. Horretarako, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da eta udal mankomunatuaren iragarki-tauletan erakusgai jarriko da. Ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak estatutuen aldaketari buruzko txostena eman beharko du epe berean. Epe hori igaro eta Gipuzkoako Foru Aldundiak txostena eman ez badu, aldekoa dela ulertuko da.
- d) Udal mankomunatuak onartzea, hurrenez hurrengo udalbatzetako kideen legezko gehiengo absolutuarekin hartutako osoko bilkuraren erabakiaren bidez.
 Prozeduraren fase horretan, bozkatzen den testuan ezin izango da aldaketarik egin.
- e) Estatutuen testu osoa, aldaketak eta guzti, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Lehen xedapen gehigarria

Udal mankomunatuaren ordezkariak 9. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izendatutako kideei egokituko zaie. Hasiera batean, honako eskala honen arabera boto kopurua izango du erakunde bakoitzak:

Udalerriak	INEk argitaratutako biztanleen behin betiko datuak (2016/01/01)	Mankomunitateko ordezkariak (%)	5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan ordezkari esleitutako botoak	
Altzaga	171	0,2		
Arama	206	0,3		
Ataun	1.701	2,4		
Beasain	13.949	20,1	10,1	10,0
Ezkio	455	0,7		
Gabiria	487	0,7		
Gaintza	121	0,2		

Idiazabal	2.304	3,3		
Itsaso	158	0,2		
Itsasondo	658	0,9		
Lazkao	5.339	7,7	4,4	4,3
Legazpi	8.485	12,2	6,1	6,1
Legorreta	1.443	2,1		
Mutiloa	256	0,4		
Olaberria	941	1,4		
Ordizia	9.875	14,2	7,1	7,1
Ormaiztegi	1.316	1,9		
Segura	1.472	2,1		
Urretxu	6.805	9,8	4,9	4,9
Zaldibia	1.575	2,3		
Zegama	1.514	2,2		
Zerain	255	0,4		
Zumarraga	9.918	14,3	7,2	7,1
GUZTIRA	69.404	100		

Bigarren xedapen gehigarria

Mankomunitatean integratutako udalek, agintaritzako agenteen bitartez (Udaltzaingoko funtzionarioak, zaintzaileak, aguazilak edo laguntzaileak) eskainiko dute laguntza, elkarlan eta lankidetzak aktiboa Sasieta Mankomunitatearen ikuskaritza- eta zehapen-arloan, Batzorde Betearazleak onartu eta udalei jakinarazi zaizkien ikuskaritza-planetan ezarritako terminoetan..

Azken xedapena

Estatutu hauek, legez tramitatu ondoren, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiari igorriko zaizkio, Gipuzkoako Toki Erakundearen Foru Erregistroan inskriba ditzan eta bidezko jakinarazpenak egin diezazkien Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari eta Estatuko Administrazioari.

Beasainen, 2017ko abenduaren 18an.